

“Orain presoak” lelopean egingo diren manifestazioetan parte hartzeko deia egiten dugu



Abenduan Nazio Batzarrak eztabaidatu eta onartutako Testuinguruaren azterketan zehazten zuen moduan, preso eta iheslariak etxera ekartzeko borroka indartzea izango da LABen lehentasunetako bat datozen hilabeteetan.

Horrela, LABek dei egiten langileei datorren urtarrilaren 12an eta “Orain presoak” lemarekin Bilbon eta Baionan deitutako mobilizazioetan parte hartzera. Batzorde Exekutiboko ordezkari bana bidaliko du LABek bakoitzera, Garbiñe Aranburu Igor Arroyo Bilbon izango dira, eta Eñaut Aramendi eta Aiora Imaz Baionan.

Aste beltz baten ondotik iristen da urtarrilaren 12ko deialdia, Garikoitz Aspiazu presoaren senitartekoen istripua, Juan Mari Maiezkurrena preso ohi gaixoaren heriotza... eta gertakariok oso lotuta daude espetxe politikarekin, dispersioa, salbuespenezko neurrien aplikazioa... Giza eskubideen urraketarekin, hain zuzen ere.

Esparru sindikalari dagokionez, nabarmentzekoa da Bilbon sindikatu guztiak egongo direla. Gainera, Bilbon, tokiko ekimen bat aurkeztu zuten abenduaren 20an, hilabeteko mobilizazioetan oinarrituko dena.

Estrasburgoko epaiak urriaren 20ko Donostiako manifestazioak utzitako zapora on guztia lapurtu zigun eta estatu espainiarraren aldetik ematen ari diren urrats urriek ez dute baikor izateko aukera gehiegirik ematen. Era berean, Frantziako Gobernuak pasa den ikasturtean emandako urratsen ondotik, nolabaiteko motelaldia nabaritzen da.

Horrela, LABek euskal presoak Euskal Herriratu eta ondoren etxeratzeko borrokan jarraituko du. Ildo horretan, ezinbestekoa iruditzen zaigu lortzen ari diren akordioak jendarte osora eramatea, baita lantokietara ere, eta Espainiako nahiz Frantziako Gobernuak interpelatzeko mobilizazio soziala indartzea, bai larunbatari begira, baita hortik aurrera ere.